

## SANTA BARBARA'REN MARTIRIYUA

Santa Barbara zure bizitza kantuz biar det zabaldu argitasun bat memoriyara naibadidazu bialdu. Biotza pozaz minganak ere zerbait its egindo aldu ejenplu ori aditu faltan inor ez dediyen gald.

Barbara'k zuen aita pagano jaunaren bildur gabia, alabak berriz nayago zuan kristandadeko legia. Orientalen batayatu zan izanik umildadia, orain zeruan gozatzen dago bere eternidadia.

Bularrak moztu eta eraman kalabozuan barrena, Barbara bere itzian firme aitak ori zuan pena. Gobernadore batek eman du erremateko ordena, ezpatarekin bertan lepu a kentzia dala onena.

## ZEZEN FESTA PASAIAN

Pasaiaiko erritik - dator notiziya zezen bat izan dala - jenioz biziya: kantatutzero nua - bixtan ikusiya konsolatzeko triste - dagoen guziya.

Santiago eguna - Pasaian sinale, allegatu ez danak - egin beza galde; asieran jendia - zezenaren alde azkenian etziran - arrimatu zale.

Torillotik atera - zuten lendabizi bei zar bat gidariya - bandera ta guzi arrapatzen zuena - purrukatzen asi, azkenian kanpora - plazatik igesi.

## IYA GURIAK EGIN

Iya guriak egin du ba-degu zenek agindu ez oraindik umildu alkarrengana bildu, gerra nai duan guziya, berari kendu biziya.

Ez naiz ni gerraren zale baizik pakearen alde zenek nai duen galde berari tira dale, bala bat sartu buruan aspertuko da orduan.

Gu gera iru probintzi lengo legerik ez utzi oyeri firme cutsi naiz anka bana autzi, jayoko dira berriyak gu gera Euskal-Erriyak.

## IPARRAGUIRRE ABILLA DELA

Iparraguirre abilla dela askori diot aditzen eskola ona eta musika ori oiekni serbitzen. Ni ez nazu ibiltzen kantuz dirua biltzen komediante moduan de balde festa preparatzen de gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika bertsolaria ganera gu ere zerbait izango gera orla ornitzen ba gera. Atoz gure kalera baserriak legera musika oiek utzi ta Errenterian bizi naiz eta egin zaidazu bisita.

G13-0851

Q.B.  
16-1-41

ERESBIL



1036811  
G13-0851

45 r. p. n.



F.M.-68-543

## DISTRIBUIDORA DEL PAIS VASCO

Grupo Arévalo - Txomin-enea (Barrio de Loyola)  
SAN SEBASTIAN

Impreso por Ind. Gráf. Valverde, S. A. - San Sebastián  
Depósito legal: S. S. - 565 - 70